

izan ere aldi hori amaitu orduko 48 eskola ireki baitziren Bizkaian, horietatik 13 Busturialdeko eskualdean, eta 1923tik 1936arte beste 77 ireki ziren Bizkaian eta 13 gure eskualdean.

Bere sasoian izan zuten garrantziaz ohartzeko soilik aipatu 1933-1934ko ikasturtean 1.150 ikasle ikasten eta 25 maisu-maestra lan egiten zutela.


HAUZESKOLEN KOKAPENA ETA ERAIKETA

Hauzeskolak paisaiaren partaide dira, erakusten duten arkitektura Euskal Herriko arkitekturaren arauetara ondo egokituz.

1,5arteko hormoinaz estalita egon behar zen garbiagoa, itxurosoagoa eta, denborarekin, ekonomikoagoa izatea espero baitzuten. Hormaren goikaldea zurituta zegoen eta bere angelu guztiak borobilduta. Garbigelan bi garbigailu jartzen ziren iturri itzulgarriekin jauzi-iturri sistemadunak ikasleek ura edan zezaten, eta bere hiru paretatan esekitokiak zeuden. Sukalde-jantokia sutegi ekonomikoarekin batera, ikaztegia eta ur-korrontedun harriaz hornituta zegoen. Komunak eraikuntza nagusitik alde batetara jarrita zeuden, neska eta mutilentzako ezberdinak zirelarik, denak kanpoko atea,

zuten, jabetza udaletxearena edo Aldundi Gorenarena izango zelarik. Azkenengo honek, auzokide-taldeei emakida ezberdinak egin ziezaiekeen, betiere irakaskuntzara zuzentzen zen bitartean Aldundiaren eskuetan uzten bazuten eraikuntzaren ustiaketa, beraien semealabek berton ikasteko lehen-tasunaz ados egonik.

Udalek, beraiei zegokienean eta, auzokide-jabeek, besteetan, lokalen kontserbazioaren ardura zeukaten, bai eta urteetan zehar eskolen egoera egokia izan zedin egin beharreko berrikuntzak egitea ere.



Akordako
Hauzeskola

Eraikuntza solairu bakarrekkoa da, atarian, ikasgelan, material-gelan eta sukalde-jantokian bananduta. Ikasgelak errektangularrak eta luzeak ziren argiztapen egokia eta uniformeak lortzeko, hurrengoko ezaugarriak betetzen zutelarik: 6,5 metro zabaleran, 9 luzeran eta 4,25 metro altueran zapaiaraino eta zorua egurrezkoa, baldosazkoa edo konprimitutako zerrautsezkoa batez ere, 0,25 metroko altuerako zutabeen gainean jarrita egonik barneko aire-korronteari esker hezetasunetik babesteko; argia ikasgeletara alde batetik bakarrik sartzea, ezkerreko aldeko 2x2,5 metroko neurriko hiru leiho errektangularretatik hain zuzen ere, gora eta behera horizontalki mugitzeko gaitasunarekin ikasgelaren aireztapena egokia egiteko; ikasgelak berogailuz hornituta egotea irakaslegoa hotzetik babesteko.

Segidan ere aztertzen ari garen eraikuntzaren beste zenbait ezaugarri aipatuko ditugu. Eskola osoa 1,2tik

aireztapen konstantea eta zegokien konketaz osaturik zeudelarik.

Eskola guztiak era berdinekoak ziren, edozein mailatakoak izanda ere. Aldaketak ikasgela -eta zegokien garbigela-kopuruan soilik ematen ziren, hori hezkuntza-errola osatzen zuten umeen kopuruaren araberrakoa izanik, ikasgelako eta maisu-maestrako izan baitziren 48 eskolume baino gehiago egon.

Denek betetzen zuten Aldundiak ezarritako arauak, zeineak, gainera, zentruaren planua egin, eraikitzeke baldintzak jarri eta eraikita zeuden eraikuntzen berrikuntzen ardura izan ezezik, non eraiki behar ziren eta zernolako higie baldintzak bete behar zituzten ere, erabakitzen zituen.

Hala eta guztiz ere, eta 1926ko Araudiak zioenez bere lurraldeetan auzoeskola ireki nahi zuten auzoen udalerriek horretarako egokiak izan zitezkeen lokalak jartzea ezinbestekoa

Eraikuntza asko Udalek eraikitakoak izan ziren, Udalerriaren aurrekontuen kontura, auzoko kideen laguntza ere izan bazuten ere. Busturialdean aurki daitezkeen auzokideen eskola batzuk honexek dira: Albiz (Mendata); Belendiz (Arratzu); Metxika eta Olabarri (Errigoiti); Ajurias, Areatza, Astellarra eta Zugastieta (Muxika); Baldatika (Forua); Gabika (Ereño); Berreño (Munitibar-Arbazegi-Gerrikaitz); Akorda eta Antzora (Ibarrangelu); Oma (Kortezubi); Barinaga (Markina-Xemein); Zendokiz (Arteaga); Kanpantxu (Ajangiz) eta Paresi (Busturia).

ESKOLAKO ANTOLAKUNTZA

Antolakuntza-motari dagokionez hiru erakoak izan zitezkeen: Mixtoak, unitarioak eta bereziak edo mailakatuak. Bakunak, bikoitza eta bereziak moduan ere ezagunak ziren; bikoitzak, era berean, mistoak edo unitarioak izan zitezkeen, eta bereziak, bikoitza mistoekin gertatzen zen moduan,

mailakatuak izan behar ziren araudiak zioenez.

Mailakatutako eskolak bi maila-takoak ziren. Beste eskolak eta ikasgelak unitarioak ziren, bakuna zein bikoitza, eskola bikoitz horietan mutilak maisuen eskuetan eta neskak maestrenetan zeudelarik.

Ikaslegoa onartzeko bost eta hamalau urte bitartekoa izan behar zen. Eskolan zegoen bitartean ondoko maila hauek gainditu beharra zegoen: prestatzeko maila, 5tik 7urtearte; oinarrizko maila, 8tik 10 arte gutxi gorabehera; erdiko maila edo maila ertaina, 11tik 12ra bitartean; goiko maila, 13urtetik 14ra bitartean.

Egunero, orotarra, 6 ordu ematen ziren.

Eskualdeko eskola guztiak A motakoak ziren, euskal hizkuntzaz baliatu behar zirelarik maisu-maistrak irakasteko, are gehiago gaztelera ezezaguna zeukaten haurren kasuan, betiere gaztelera erakutsi behar zietela ahaztu gabe.

ERAIKUNTZEN BEHERALDIA

Guda zibilak eragin nabarmena izan zuen, zeren eta 36. eta 37. urteetan tropa frankistek izan zuten ofensibaren ondorioz umeak atzerrira ebakuatzen hasi baitziren, zeregin horretan maisu-maistrak ere parte hartu zutelarik.

Gainera, Mugimendu Nazionalak bultzatutako legeak indarrean jartzen hasi zirenean Bizkaian lehenago zeudenagatik ordezkatu egin ziren -eta, horrela, Aldundiek ordurarte kultura eta hezkuntza-aktibitateak sustatzeko

zeukaten gaitasun ekonomikoa galdu egin zuten.

Hirurogeigarren hamarkadan, nortasunik gabeko barreiatuak zeuden herrien mailan egindako eskualdeetako kontzentrazioa zela medio, auzo-eskolek ixteko behar zuten azken kolpea eman zitzaientzen, ondorioz eta astiro-astiro bata bestearen atzetik sarratzen joan ziren.

GAUR EGUNEKO EGOERA

Begibistan dago hauzeskola bizirik irauten duen udalerrietan ale bat edo bi besterik ez daudela, Muxikan izan ezik 5 baitdaude-eta, oso auzo barreiatuak zirela eta bakoitzak etxegunea osatzen zuelaren adierazgarri izanik.

Gaur egun aurki daitezkeen eraikuntzen egoera aztertuz gero nabaria da ezberdintasunak daudela, atal honi dagokion taula begiratzea baino ez dago horretaz ohartzeko.

Morgako Andra Mari auzokoa kenduta, beste guztiak zutik diraute egun, 5 suntsituta edo erdisuntsituta aurki daitezkeelarik eta besteak osorik. Honetaz ari garelarik xehetasun bat egitea komeni da, suntsituta dagoela esaten denean hormak edota teilatua ez dutela osorik esangura da, eta erdisuntsituen kasuan, aipatutakoak zutik dituztela egoera txarrean egon badaitezke ere alegia. Logikoa denez, suntsituta edo erdi suntsituta daudenak ez dira erabiltzen, baina oso-osorik daudenak ordea bai. Gehienak txoko moduan, Muxikako Maumekoa esate baterako, bestelako erabilpen ezberdinak dituztenak ere dauden arren, Ajangizko Kanpantxukoa (kultur

taldeak, musika-taldeak...) eta Erri-goitiko Metxikakoa (txokoa eta udan, kanpardiatarako) adibide pare bat jartzeagatik.

Aipagarriak dira ere etxebizitza moduan erabili ohi diren Gautegiz-Arteagako Basetxetakoa eta Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitzeko Ganbekoa, ez baitute apenas aldaketarik izan, ez behintzat kanpoko itxurari dagokionez.

ETORKIZUNERAKO PROPOSAMENAK

Ikus daitekenez eman zaien erabilpena egokia izan da modu onean kontserbatzeko, halere, eta eskualdeak aterpetxetan duen urritasuna ikusirik, ondo letorke erabilpen hori ematea, horrela Busturialdeko Eskualdean zehar basetxe-sarea eratuko bailitzateke, modu honetara kulturgunetara hurbiltzea oso zaila izan duten herrietako pertsonen hezkuntzan hain paper garrantzitsua jokatu duten eraikuntzak berreskuratu eta mantendu ezezik, bizi direneko natura eta nekazal-inguruneak sustatu ere egingo ditugu.

Momentuz, Busturialdeko eskualdeko zenbait hauzeskola (Lumo, Antzora, Akorda, Albiz eta Basatxetakoa) Euskal Ondarearen Behin-behineko zerrendan sartuta daude. Espero dezagun, laister, ez daudenak, gutxienez bil ditzatela eta, zerrendatuta daudenak, aurrera ateratzeko aukera handiak emango lizkiekeen Kultura-Ondarea izenda ditzatela. ▲

Txepetxa Urdaibaiko Ekologistak

Urdaibaiko O.E.

Koldo Lezcamiz / José Antonio Cáceres



*Areatzako
(Muxika)
Hauzeskola
(Educación
y Escuelas
de Barriada
de Bizkaia)*